

ETXARRI ARANAZKO ETA XXXXXXXXXKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA, ETXARRI ARANAZKO UDAL MUSIKA ESKOLA KUDEATU ETA FINANTZATZEKO

Etxarri Aranatz, 2018ko apirilaren 12a

HAUEK BILDU GARA:

Alde batetik, Eneka Maiz Ulaiar, Etxarri Aranazko alkatea (NAN: 33.420.047) tokiko entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz,

Bestetik, XXXXXX, XXXXXko alkatea (NAN:xxxxxx , tokiko entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Aurrekariak

Etxarri Aranazko udal musika eskolak ibarreko hainbat herritako ikasleak hartzen ditu. Beraz, udalak bere gain hartzen ditu eskualde mailako zerbitzu baten kudeaketa eta hark sortzen dituen gastuak, udalerri horietako udalek ez baitute zerbitzu hori eskaintzen.

Jakina denez, musika hezkuntza funtsezko jarduera da gure kulturaren eta tradizio zein inplementazio luzea du gure gizartean. Gainera, hezkuntza alderdia zabaltzen du, herritarren oinarritzko eskubidea den aldetik.

Behean sinatzen dugun udalok egokitzat jotzen dugu lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, proiektua funtsezkoa baita eskualdearen hezkuntza eta kultur garapenerako.

Hitzarmenaren helburuak

Beraz, hitzarmen honen xedea da Etxarri Aranazko eta XXXXXko udalen arteko lankidetzaren sustatzea, bai eta udal titulartasuneko Etxarri Aranazko udal musika eskola lankidetzaren bidez finantzatzea ere, honako helburu hauek erdiesteko:

-Herritarrek musika diziplinak ikas ditzaten sustatzea, bereziki Etxarri Aranazko eta xxxxxko udaletako haur eta gazteek, baita atxikita dauden beste udaletakoek edota etorkizunean atxikitu daitezkeen udaletakoek ere.

-Musika kultura sustatzea eta zabaltzea, gure herrietako gizarte eta kultur

bizitzan eragin positiboa izan dezan.

-Erakunde guztiek konpromisoa hartzea lankidetzan aritzeko eta musika eskolako hezkuntza eta pedagogia proiektuaren kalitatea eta egonkortasuna bermatzeko.

-Udalerrri horiek ordaindu beharreko tasak arautzea eta bateratzea

Estipulazioak

Lehena:

Etxarri Aranazko Udala udal musika eskolako titularra da —eskola Kale Nagusiko 75.ean dago— eta eskumen osoa du hezkuntza alorrean, hala ezarrita baitago Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikulua n) eta m) puntuetan

Bigarrena:

Etxarri Aranazko eta xxxxxko udaletako ikasleekin irizpide berberak erabiliko dira honako gai hauei dagokienez: matrikularen zenbatekoa, onartzeko lehentasuna eta zentroko barne kudeaketako organoen parte-hartzea.

Hirugarrena:

Xxxxxxxko Udalak, eskatuz gero, zentroko eskola kontseiluan parte hartu ahal izango du. Hitza izango du, baina botorik ez. Hori bermatzeko, Etxarriko Udalak estatutuak egokituko ditu, heldu den urtean. Era berean, zentroko kudeaketaz eta gobernuaz behar duten informazio guztia jasoko du. Etxarri Aranazko Udalak eman beharko dizkie entitate horiei proiektu pedagogikoaz, eskolako barne funtzionamenduaz, urteko matrikula kopuruaz, gastuen kontzeptuez eta abarrez tarteka eskatzen dituzten datu guztiak. Era berean, ikasleen matrikulazio kanpainan parte hartuko dute, eta horretarako, eskolari buruzko propaganda egingo dute euren herrietan.

Laugarrena.

Udalerrri bakoitzeko ikasle kopurua eta bakoitzak hartutako ikasgaiak funtsezko irizpidetzat hartuko dira Etxarri Aranazko udal musika eskolak urtean eragindako defizita finantzatzeko.

Familia ugarietarako, genero indarkeriak eragindako familiei eta guraso bakarreko familiei % 20 hoberia aplikatuko zaie tasetan, Etxarriko Udalak egiten duen bezalaxe.

Honako hauek hartuko dira gastutzat: hezkuntzako eta administrazio langileak, mantentze eta konponketa lanak, material teknikoa, ura, argindarra eta hornidurak, atezaintza eta garbiketa. Eta, oro har, udal musika eskolak, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen duen aldetik, Hezkuntza Departamentuan horretarako aurkezten

dituen ziurtagirietan sartzen dituen ohiko gastuak eta mantentze gastu guztiak.

Eraikinean egiten diren inbertsioak, hobekuntzak eta zaharberritze lanak Etxarriko Udalaren konturakoak izango dira.

Honako gastu hauek hartuko dira diru-sarreratzat:

- Nafarroako Gobernuak urte barruan emandako diru-laguntza.
- Matrikulak eta kuotak.
- Ibarreko udalen ekarpenak.

Defizita gastuen eta sarreraren arteko kendura izango da. Udal bakoitzak duen ikasle kopuruaren arabera egingo da, ikasgai kopurua kontuan hartu gabe. Hala ere, udal bakoitzak bere gain hartuko du berari dagokion % 20ko murrizketa, hain zuzen ere familia ugarietara, guraso bakarretara eta genero indarkeriak eragindako familietara tasetan aplikatuko zaiena.

Etxarri Aranazko Udalak amaitutako ikasturte bakoitzaren gainean kalkulatu du defizita, eta xxxxxko Udalari urrian jakinaraziko dio bere herriko ikasle kopuruaren arabera ordaindu beharko duen kuota.

Bosgarrena:

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du, sinatzen denetik kontatuta eta urtero luzatu ahal izango da baldintza berberetan, betiere alderdietako batek salatzeko asmoa azaltzen ez badiu Etxarriko Udalari hilabete lehenago.

Seigarrena:

Etxarri Aranazko Udalak hitzarmena sinatzeko aukera eskaini ahal izango die interesa duten beste udal batzuei, betiere hitzarmenean ezarritako baldintzak ezertan aldatu gabe.

Zazpigarrena:

Hitzarmena sinatzen ez duten udaletako herritarrek matrikula eta kuota desberdina ordaindu beharko dute. Era berean, familia ugarietara, guraso bakarretara eta genero indarkeriak eragindako familietara ez zaie % 20ko murrizketa aplikatuko ordaindu beharreko tasan.

Eta horrela jasota gera dadin, bertaratutakook hitzarmen honetako bi aleak sinatu ditugu, ados daudela eta bertan ezarritakoa beteko dugula adierazteko.

Etxarri Aranazko alkatea

xxxxxko alkatea

Eneka Maiz Ulaiar